Justiziaren Plan Estrategikoa
2022-2028
Plan Estratégico de Justicia



# Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko plana

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

**Argitaraldia:**
1.a, 2023ko abendua

**Ale-kopurua:**
40 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila
**Internet:**
www.euskadi.eus

**Argitaratzailea:**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Autoretza:**
Justizia Zuzendaritza
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

**Itzulpena:**
IZO. IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

**Inprimaketa:**
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**
LG G 569-2023

**ISBN:**
978-84-457-3741-5

# Edukia


**1. Planaren sarrera ..... 5**

1.1. Aurkezpena ..... 5

1.2. Helburuak ..... 7

1.3. Denbora-muga ..... 7

1.4. DPJSParen egitura ..... 7

1.5. Genero-ikuspegia txertatzea ..... 8

1.6. Hizkuntza-normalizazioa ..... 8

**2. Testuingurua ..... 9**

2.1. Gizarte- eta arau-arloko aldaketa ..... 9

*Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa ..... 9*

*Brasiliako arauak ..... 9*

*Europar Batasuna ..... 9*

*8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena ..... 10*

*Ahalmen juridikoari eta prozedura-doikuntzei buruz indarrean den bestelako araudia ..... 11*

2.2. Justizia Ministerioaren 2030eko Justizia Plana ..... 11

2.3. Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinak irisgarriak izateko arau teknikoak ..... 12

**3. Egoeraren diagnostikoa ..... 12**

3.1. Iturriak ..... 12

3.2. Datuak, EAEko estatistikak ..... 14

*Estatistikako Institutu Nazionala. Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkesta (EDAD, 2020) ..... 14*

*IMSERSO 2021 ..... 15*

3.3. Eraikin eta instalazio judizialen irisgarritasuna ..... 17

*Eraikinetako sarrerak ..... 18*

*Barruko eremuen mugikortasuna ..... 18*

*Igogailuak ..... 18*

*Epaiketa-aretoak eta beste gela batzuk ..... 19*

*Komunak ..... 19*

*Seinaleztapena ..... 19*

3.4. Komunikazio- eta ulermen-oztopoak ..... 20

3.5. Prozedura-doikuntzak ..... 21

3.6. Prestakuntza ........ 21

3.7. Hautemandako tratua ........ 21

3.8. 8/2021 Legea indarrean jarri aurretik ezintasun-prozeduretan hartutako neurrien berrikuspenak ........ 22

3.9. Diagnostikoaren elementurik garrantzitsuenak ........ 22

*Honako hau falta zaigu:* ........ *22*

*Honetan aurrera egin dugu:* ........ *23*

**4. Zer garen eta nola nahi dugun ikus gaitzaten ........ 24**

4.1. Misioa ........ 24

4.2. Ikuspegia ........ 24

**5. 2023-2027ko DPJSParen ekintza-plana ........ 25**

5.1. Ildo estrategikoak eta helburuak ........ 25

5.2. Proiektuak, ildo estrategikoen arabera ........ 27

5.3. Proiektuen fitxak ........ 28

5.4. DPJSPa betearazteko kronograma ........ 41

5.5. Adierazleen taula ........ 42

5.6. Aurreikusitako inbertsioak ........ 44

*Proiektuen finantzaketa* ........ *44*

*2.IEren banakapena, egoitza judizialen arabera* ........ *45*

**6. Kudeaketa- eta gobernantza-eredua ........ 46**

6.1. Lanketa ........ 46

6.2. Kudeaketa-eredua ........ 47

*Kudeaketa-ereduaren printzipioak* ........ *47*

*Antolamendu-eredua* ........ *48*

*Baliabideak* ........ *50*

6.3. Jarraipena eta ebaluazioa ........ 51

**I. eranskina: Eraikin judizialen irisgarritasuna ........ 52**

**II. eranskina: Inkesta ........ 59**

AII.1 Galdetegia irakurketa errazean ........ 59

AII.2 Emaitzak ........ 66

# 1. Planaren sarrera

## 1.1. Aurkezpena

Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko plana (aurrerantzean, DPJSP) Euskadiko Justizia Plan Estrategikoan (2022-2028) jasotzen diren proiektuetako bat da, eta pertsona kalteberenei justiziarako sarbidea errazteko ildo estrategikoaren barruan dago kokatuta.

Justiziaren Plan Estrategikoa 2022-2028

**Ildo estrategikoen mapa**



## Ildoak, programak eta ekintzak

**Deskribapena** | **Helburua**

### 2IE Justiziak sarbidea eta babesa ematen die pertsona

| Deskribapena | Helburua |
| --- | --- |
| EAEko gizartea bidezkoagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa izan dadin bultzatzea, pertsona kalteberenekin lotutako justiziarekiko lankidetza-zerbitzu guztiak indartuz. | Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzu gehiago eta hurbilagoak garatzea; horiek gehiago babesten dituzte pertsona kalteberenen kolektiboak (biktimak, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, emakumeak, gazteak, adingabeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, doako justiziaren onuradunak, migratzaileak, etab.). |

| Ildo estrategikoa | Programa | Proiektuak |
| --- | --- | --- |
| **2.IE JUSTIZIAK SARBIDEA ETA BABESA EMATEN DIE PERTSONA KALTEBERENEI** | ***Justiziarako irispidea erraztea*** | 6P. Justiziarako sarbidean berdintasuna laguntzea |
| | | 7P. Doako justizia, gehiago eta hobeto |
| | | 8P. Orientazio judiziala |
| | | 9P. Justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzu-ereduaren bilakaera |
| | ***Biktimak lehenik*** | 10P. Emakumearen aurkako indarkerien biktimei laguntzea. EAIBaren planaren garapena |
| | | 11P. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua sendotzea |
| | ***Pertsona kalteberenei laguntzea*** | 12P. Justizia eta Emakumeak Programa |
| | | 13P. Justizia eta Adingabeak Programa |
| | | 14P. Gazte Justizia Plana |
| | | 15P. Justizia eta Adinekoak Programa |
| | | 16P. Justizia eta Migratzaileak Programa |
| | | 17P. Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko ekintza-plana |

## 1.2. Helburuak

Desgaitasuna duten pertsonek justiziarako sarbidea izatea bermatzea, modu eraginkorrean eta gainerako herritarren baldintza berberetan.

Desgaitasunen bat duten pertsonek beren gaitasun juridikoa modu autonomo batez erabil dezaten laguntzea.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak justiziaren eremuan bermatzeko behar diren antolaketa-bitartekoak eta giza baliabideak hornitzea.

## 1.3. Denbora-muga

DPJSPak lau urte iraungo ditu; alegia, 2023ko hirugarren hiruhilekotik 2027ko bigarren hiruhilekora. Eraikinetako irisgarritasun fisikoaren arloko jarduketek, ordea, bat etorri beharko dute Egoitza Judizialen Planarekin (2022-2030), eta, kasu batzuetan, denbora-muga hori gainditu ahalko dute.

## 1.4. DPJSParen egitura

**Testuingurua eta diagnostikoa**
- Gizarte- eta arau-arloko aldaketa
- Irisgarritasuna hainbat eremutan

**Misioa, ikuspegia**
- Planaren izateko arrazoia
- Nola nahi dugun ikus gaitzaten proiektuak garatu ondoren

**Ekintza-plana**
- Jardun-ildoak edo -eremuak
- Gauzatu behar diren proiektuak
- Kronograma
- Aurrekontua

**Kudeaketa- eta jarraipen-eredua**
- Indarraldian aplikatuko diren kudeaketa- eta jarraipen-mekanismoak ezartzen ditu

## 1.5. Genero-ikuspegia txertatzea

Proiektu eta ekimen guztietan, honako jarraibide hauek hartu beharko ditugu kontuan:

- Gaztelaniaz *personas* diotenean (herritarrak, gizartea, epaileak, fiskaltza, Justizia Administrazioko letraduak, Justizia Administrazioko langileak, abokatuak, prokuradoreak, lan-harremanetako gradudunak, elkarteak, erabiltzaileak...), emakumeei eta gizonei buruz ari dira, eta premia desberdinak dauzkate eskubideak baliatzeari dagokionez eta, halaber, aukera desberdinak dauzkate baliabide ekonomiko, kultural eta teknologikoak eskuratzeko edo parte hartzeko orduan.
- Herritarrak, erabiltzaileak, gizartea, enplegatu publikoak eta abar aipatzen ditugunean, errealitatea den modukoa egin beharko dugu ikusgai: herritarrak emakumeak eta gizonak dira, % 50ean ia. Barne-operadore juridikoen artean, berriz, % 60 baino gehiago dira emakumeak. Eta, gure zerbitzuen hartzaileen artean, gizonak baino emakume gehiago egongo dira, edo alderantziz, zerbitzuak zein diren; halere, kontuan hartu beharko dugu premietan eta baliabideetarako irispidean desberdintasunak dituztela. Beraz, sexismoa saihestu behar dugu.
- Kontuan hartuko ditugu hala berdintasun-arloan aplika daitekeen legedia, nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- Emakunderen, Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUren web-orrietan eskuragarri dauden baliabideak eta tresnak erabiliko ditugu, errazagoa izan dadin genero-ikuspegia txertatzea; hala nola: hizkunera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko gidak, bideoak, txekeo-tresnak, berdintasun-klausulak, dirulaguntzak eta hitzarmenak, egoera bereizgarriei testuingurua jartzeko materialak eta abar.

## 1.6. Hizkuntza-normalizazioa

Plana egiteko, aintzat hartu dugu hizkuntza-normalizazioaren ikuspegia; bereziki, honako dekretu honetan xedatutakoari heldu diogu: 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa.

# 2. Testuingurua

## 2.1. Gizarte- eta arau-arloko aldaketa

### Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa

Nazio Batuen 2008ko Konbentzioak paradigma-aldaketa ekarri zion desgaitasuna duten pertsonen autonomiaren aitortza juridikoari. Hala, eredu medikoaren ordez, eskubideetan oinarritutako gizarte-ereduaren alde egin zen, eta eskubideak bete-betean baliatzeko laguntza-prozesuak gailendu ziren, eredu ongile, asistentzialista eta segregazionisten aurrean. Halaber, agindu bat ezarri zen estatu kideetarako, *desgaitasuna duten pertsonak justiziara gainerakoen baldintza berberetan irits daitezen bermatzekoa*[1], hain zuzen ere.

### Brasiliako arauak

Iberoamerikako XIV. Goi-bilera Judizialean (2008) Brasiliako arauak onetsi ziren, pertsona kalteberek justiziarako sarbidea izateari buruzkoak. Justizia-sistemetako eragile guztiei daude zuzenduta, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan bezala definitzen dute desgaitasuna. Halaber, justiziarako irispidea bermatzeko irizpideak eta neurriak ematen dituzte:

Desgaitasuntzat jotzen da urritasun fisiko, mental edo sentsoriala, iraunkorra nahiz aldi baterakoa, baldin eta eguneroko funtsezko jarduera bat edo gehiago egiteko ahalmena mugatzen badu; gainera, ingurune ekonomiko eta sozialak eragin dezake desgaitasuna, edo larriagotu[2].

Beharrezko diren baldintzak ezarri beharko dira desgaitasuna duten pertsonek justizia-sistemarako sarbidea izan dezaten, behar diren zerbitzu judizial guztiak erabiltzeko neurriak barne hartuta, eta, era berean, pertsona horien segurtasuna, mugikortasuna, erosotasuna, ulermena, pribatutasuna eta komunikazioa bermatzen dituzten baliabide guztiak eduki beharko dira[3].

### Europar Batasuna

Europar Batasunak, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean nahiz Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean, pertsona guztiei aitortzen die Legearen aurrean berdinak izateko eta diskriminazioaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea.

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak ezartzen duenez, *Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du desgaitasuna duten pertsona guztiek dutela eskubidea independenteak izatea, gizarteratu eta laneratzea eta komunitateko bizitzan parte hartzea bermatzeko diseinatzen diren neurriez baliatzeko*[4].

Europako Batzordeak, 2010eko azaroan, honako estrategia hau onetsi zuen: *EBren 2010-2020ko Desgaitasun Estrategia: Konpromiso berritu bat, oztoporik gabeko Europa baterako*. Estrategiak, baita berori garatzen duten zuzentarauek ere, helburutzat dute desgaitasuna duten pertsonei gizartean gainerakoen baldintza berberetan parte hartzea galarazten dieten oztopoak desagerraraztea.

---

[1] Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa, 13. art.

[2] Brasiliako arauak, egoera kalteberan dauden pertsonek justiziarako sarbidea izateari buruzkoak, 7. araua.

[3] Brasiliako arauak, egoera kalteberan dauden pertsonek justiziarako sarbidea izateari buruzkoak, 8. araua.

[4] Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 26. art.

## 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena

Nazioartean izandako aldaketa guztiak bi unetan eraman dira Espainiako legedira:

- 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, araudiak Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora egokitzekoa dena, eta irailaren 16ko 1276/2011 Errege Dekretua, 26/2011 Legea garatzen duena. Bi arauek daukate jatorria Ministroen Kontseiluak 2010eko erabakian onetsitako txosten batean; izan ere, bertan zehazten dira Espainiako legedia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBEren Konbentziora egokitzeko behar diren neurriak (NBEk hainbat ministeriotako sailei agindu zien erreformak susta zitzatela haien eskumen-eremuan).
- 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena.

8/2021 Legeak, besteak beste, Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea, Borondatezko Jurisdikzioaren Legea eta Erregistro Zibilaren Legea aldatu zituen, eta aurreko sistema aldatzeko oinarriak finkatu; izan ere, ordura arte, nagusi zen desgaitasuna zuten pertsonak beraiei eragiten zieten erabakietan agindu judizialez ordezkatzeko joera. Hala, pertsona horien borondatea eta lehentasunak errespetatzeko eredu baten alde egin zen, haiek izan zitezen, oro har, beren erabakiak hartzeko eskudunak.

Sistema berriaren ideia nagusia da ahalmen juridikoa baliatzen laguntzea hala behar dutenei, unean uneko laguntzak nahiz iraunkorrak izan gorabehera. Laguntza horiek, gainera, goitik behera errespetatu behar dituzte desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, borondatea eta lehentasunak, eta haien inguruabarretara egokituta egon behar dute.

Hala, ezgaitasun-kausak ezabatu ziren Kode Zibiletik; gaitasuna aldatzeko prozedura desagertu zen, eta legezko zaintzaren instituzio tradizionalak (tutoretza, guraso-ahal birgaitua edo luzatua eta zarrastelkeria-deklarazioa) desagertu ziren.

Esparru berrian, desgaitasuna duten pertsonei **ahalmen juridikoa baliatzen laguntzeko neurriak** gehienbat borondatezkoak dira, ez judizialak:

1. Borondatezko neurriak: prebentzio-ahalordeak eta autokuradoretza.
2. Izatezko zaintza *egokia, nahikoa eta eraginkorra* (arauan indartu da).
3. Laguntza-neurri judizialak:
   a. Kuradoretza (asistentziala, salbuespenez bakarrik ordezkaritzazkoa). Laguntza-neurri iraunkorrak 3 urtera berrikusi behar dira (6 urtera luza daiteke epea);
   b. Defendatzaile judiziala: unean uneko jarduketetarako izendatzen da, izatezko kuradorearekin edo zaintzailearekin interes-gatazka egon daitekeenean.

Lehen, Espainiako ordenamenduan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko erregulazio bat zegoen, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan jasotzen zena (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena), eta arau horrek Justizia Administrazioa hartzen zuen aplikazio-eremuan.

Legedi prozesalean ere (adibidez, Zigor Kodearen 25. artikuluan, Prozedura Kriminalaren Legearen 433. artikuluan eta Biktimaren Estatutuaren 21.1 artikuluan), desgaitasuna aintzat hartzen zen alderdi batzuetan, honako gai hauen inguruan: desgaitasuna duten pertsonei laguntzea, horixe eskatuz gero; atxilotuak, entzumen-desgaitasuna badauka, interprete batek doan laguntzeko eskubidea izatea edo informazioa desgaitasun-mailara egokituta jasotzeko eskubidea izatea.

Gero, 6/2022 Legeak, martxoaren 31koak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haien gizarteratzearen Lege Orokorraren testu bategina aldatzen duenak, irisgarritasun kognitiboaren terminoa sartu zuen, eta hura eskatzeko eta aplikatzeko baldintzak ezarri eta arautu zituen.

### Ahalmen juridikoari eta prozedura-doikuntzei buruz indarrean den bestelako araudia

- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.
- 15/2015 Legea, uztailaren 2koa, Borondatezko Jurisdikzioarena.

## 2.2. Justizia Ministerioaren 2030eko Justizia Plana

Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko plana (2023-2027) bat dator Justizia Ministerioaren 2030eko Justizia Estrategiarekin (10 urtera begirakoa da). Estrategia hori gobernantza partekatuan garatu da, eta, ekintzen artean, 7.2 proiektua jasotzen du, justiziarako sarbideari buruzkoa:

7.2 proiektua: Irisgarritasuna eta desgaitasuna

1. HELBURUA: ESKUBIDE ETA ASKATASUNAK ERABILTZEKO AUKERA

| PROGRAMAK | PROIEKTUAK | AZPIPROIEKTUA |
| --- | --- | --- |
| JUSTIZIA ESKURAGARRITASUNA | 1. Sarbide unibertsala | 1.1 Doako Laguntza Juridikoaren eta Ofiziozko Txandaren sistema eraginkorrao |
| | | 1.2 Defentsa-eskubideari buruzko legea |
| | 2. Hizkuntza irisgarria | 2.1 Hizkuntza juridikoaren argitasuna |
| | | 2.2 Hizkuntza-normalizazioa Justizia Administrazioan |
| | 3. Oinarrizko lege-hezkuntza | 3.1 Desparekotasunak konpontzeko hezkuntza |
| JUSTIZIAKO PROFESIONALAK | 4. Sarbidea eta garapen profesionala | 4.1 Lan-esparrua berriz diseinatzea |
| | 5. Prestakuntza | 5.1 Unibertsitateko prestakuntza |
| | | 5.2 Etengabeko prestakuntza |
| | 6. Berdintasuna eta kontziliazioa | 6.1 Berdintasun- eta kontziliazio-plana |
| GIZARTE-ERREALITATE BERRIAK | 7. Talde ahulen irisgarritasuna | 7.1 Irisgarritasuna eta zahartzea |
| | | 7.2 Irisgarritasuna eta ezgaitasuna |
| | 8. Biktimen eta salatzaileen babesa | 8.1 Biktimen babesa |
| | | 8.2 Salatzailearen babesa |
| | 9. Azterlan sozio-juridiko proaktiboak | 9.1 Azterlan sozio-juridiko proaktiboak |

2030eko Justizia Planaren barruan, 2022ko martxoaren 25eko Justizia Konferentzia Sektorialean, **irisgarritasun-arloan egoitza jasangarriak birgaitzeko estandarra** onetsi zen

Lan hori Justizia Konferentzia Sektorialean gauzatzen ari da, lantalde batzuen bidez, eta hainbat jardun-eremutan esku hartzea proposatzen du. Bada, jardun-eremuotako bat 8.a da, irisgarritasun unibertsalaren ingurukoa.

Egoitza judizialetako tokiak diseinatu eta hornitzeko eskumena duten administrazioei birgaitzeetan nahiz obra berrietan erreferentzia gisa balioko dien proposamen bat ezartzea da helburua, edozein desgaitasun daukan edonork gainerako erabiltzaileen baldintza berberetan edozein ekintza egin ahal izateko moduan egon daitezen egokituta tokiok.

Esparru horretan onetsitako irizpideek, beraz, plan hau gidatuko dute.

### 2.3. Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinak irisgarriak izateko arau teknikoak

Era berean, aintzat hartu behar dira bi arau hauetan eraikinen irisgarritasunari buruz ezartzen diren arau teknikoak: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

## 3. Egoeraren diagnostikoa

### 3.1. Iturriak

EAEko justiziaren irisgarritasun-mailaren diagnostikoa egiteko, administrazio publikoen eta hirugarren sektoreko erakundeen dokumentu- eta estatistika-iturriez gainera, bi tresna espezifiko erabili ditugu:

- Ebaluatuko diren eraikin publikoen irisgarritasun fisikoko elementu nagusiak jasotzen dituen taula bat, non, besteak beste, justizia-jauregien planoak eta dokumentazio teknikoa, dauden arkitektura-oztopoak eta abar jasotzen baitira (1. eranskina).
- Galdetegi bat, Edeka plataforman sartuta dauden elkarteen sareetan banatu dena, Justizia Administrazioarekin harremanen bat daukaten edo eduki duten desgaitasuna duten pertsonek hautemandako zailtasunen berri izateko: oztopo fisikoak, komunikazio- edo ulermen-oztopoak, prozedura-doikuntzak, pertsonen trebakuntza eta jasotako tratua.

  147 lagunek erantzun diote galdetegiari, eta esperientzia nahiz iruzkin ugari jaso dira eremu bakoitzean eskainitako tarteetan.



## Oztopo fisikoak

- Eraikin judizialetara iristeko zailtasunak
- Eraikinetako egokitzapenak eta laguntza-elementuak
- Seinale adierazleak



## Komunikazio-oztopoak egotea

- Informazio-eskaerei egoki erantzutea
- Parte hartzea
- Ideiak erraz adieraztea
- Solaskideek ulertu eta sinestea



## Ulermen-oztopoak egotea

- Informazio ulerkorra ematea, pertsonala zein orokorra
- Telefonoz edo Internetez jasotako informazioa
- Epaiketa-aretoetan laguntza-elementuak egotea
- Erabilitako hizkera

## Prozedura-doikuntzak

- Doikuntza eraginkorrak
- Eskabidearen izapidea
- Komunikazio-elementu egokiak
- Erraztaileak edo interpreteak





## Pertsonen trebakuntza

- Epaileak, fiskalak eta JAL
- Langileak
- Kanpoko operadore juridikoa



## Hautemandako tratua

- Diskriminazioaren pertzepzioa
- Hurbiltasuna, enpatia
- Oharrak

## 3.2. Datuak, EAEko estatistikak

### Estatistikako Institutu Nazionala. Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkesta (EDAD, 2020)

| 16- Euskal Autonomia Erkidegoa | Guztira | Ikusmena | Entzumena | Komunikazioa | Ikaskuntza, ezagutza-aplikazioa eta zeregien gauzapena | Mugikortasuna | Autozainketa | Etxeko bizitza | Pertsonen arteko elkarrekintzak eta harremanak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | | | | | | | | | |
| **Guztira** | **171,8** | **31,1** | **55,3** | **38,2** | **27,4** | **99,7** | **56,1** | **81,2** | **25,7** |
| **6-44 urte** | 21,1 | 3,2 | 1,9 | 8,1 | 6,5 | 9,6 | 7,6 | 8,3 | 10,1 |
| **45-64 urte** | 37,3 | 7,6 | 13 | 4,6 | 2,9 | 18,7 | 5 | 12,8 | 2,9 |
| **65-79 urte** | 50,1 | 9,5 | 17,3 | 7,2 | 4,1 | 27,9 | 12 | 17,5 | 3,2 |
| **80 urte eta gehiago** | 63,3 | 10,9 | 23,1 | 18,4 | 13,9 | 43,5 | 31,4 | 42,5 | 9,4 |
| **Gizona** | | | | | | | | | |
| **Guztira** | **69,8** | **12,5** | **21,7** | **17,1** | **10,7** | **34,9** | **20** | **28,4** | **11,4** |
| **6-44 urte** | 13,5 | 1,4 | 1,1 | 6,2 | 5,3 | 6,2 | 5,4 | 6,3 | 7,1 |
| **45-64 urte** | 17 | 3,2 | 6,4 | 2,1 | 0,9 | 8,6 | 2,2 | 5 | 1,2 |
| **65-79 urte** | 22 | 4,6 | 7,9 | 2,8 | 1,1 | 10,5 | 5,5 | 6,9 | 0,8 |
| **80 urte eta gehiago** | 17,4 | 3,3 | 6,3 | 6 | 3,4 | 9,6 | 6,9 | 10,1 | 2,3 |
| **Emakumea** | | | | | | | | | |
| **Guztira** | **102** | **18,7** | **33,6** | **21,1** | **16,7** | **64,8** | **36,1** | **52,7** | **14,2** |
| **6-44 urte** | 7,6 | 1,7 | 0,9 | 1,8 | 1,2 | 3,4 | 2,3 | 2 | 3 |
| **45-64 urte** | 20,3 | 4,4 | 6,6 | 2,4 | 1,9 | 10,1 | 2,8 | 7,8 | 1,7 |
| **65-79 urte** | 28,1 | 4,9 | 9,4 | 4,4 | 3,1 | 17,4 | 6,5 | 10,5 | 2,4 |
| **80 urte eta gehiago** | 45,9 | 7,5 | 16,7 | 12,4 | 10,5 | 33,9 | 24,5 | 32,4 | 7,1 |

*EAEn desgaitasuna duten 6 urtetik gorako biztanleak, desgaitasun-taldearen, sexuaren eta adinaren arabera. 2020. urtea. Iturria: EIN*

**Oharrak:*

- *Unitateak: milaka pertsona*
- *Pertsona batek desgaitasun-talde bat baino gehiagoko desgaitasunak eduki ditzake.*
- *5.000 pertsona baino gutxiagoko gelaxketako datuak tentuz hartu behar dira, laginketa-akats handiak izan baititzakete.*

## IMSERSO 2021




| | % 33KO EDO HORTIK GORAKO DESGAITASUNA AITORTUTA DUTEN PERTSONAK | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % 33tik % 100era | | % 33tik % 44ra | | % 45etik % 63ra | | % 64tik % 74ra | | % 75etik % 100era | |
| | Kop. | %a, guztira baloratuei dagokienez | Kop. | %a, desgaitasuna duten pertsonei dagokienez | Kop. | %a, desgaitasuna duten pertsonei dagokienez | Kop. | %a, desgaitasuna duten pertsonei dagokienez | Kop. | %a, desgaitasuna duten pertsonei dagokienez |
| **EAE** | **139.896** | **% 74,1** | **59.797** | **% 42,7** | **29.976** | **% 21,4** | **28.954** | **% 20,7** | **21.169** | **% 15,1** |
| Araba | 21.742 | % 71,2 | 9.397 | % 43,2 | 5.340 | % 24,6 | 3.844 | % 17,7 | 3.161 | % 14,5 |
| Bizkaia | 66.804 | % 69,5 | 30.028 | % 44,9 | 13.006 | % 19,5 | 15.292 | % 22,9 | 8.478 | % 12,7 |
| Gipuzkoa | 51.350 | % 82,6 | 20.372 | % 39,7 | 11.630 | % 22,6 | 9.818 | % 19,1 | 9.530 | % 18,6 |

*Aitortutako desgaitasun-mailaren arabera baloratutako pertsonak EAEn, probintzien eta sexuaren arabera. 2021. urtea. Iturria: Imserso*

| | |
|---|---|
| EAE GUZTIRA: >= % 33ko desgaitasun-maila aitortuta duten pertsonak | **139.896** lagun **% 6,30**, biztanleriari dagokionez |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## GERTATZEN DEN LEHENENGO URRITASUNA, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN, PROBINTZIAREN ETA ADINAREN ARABERA.

| | % 33tik % 100era | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| Desgaitasun osteoartikularra | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | Kop. | Kop. | Kop. | Kop. | Kop. | Kop. |
| EAE | 35.042 | % 3,6 | 45 | 172 | 712 | 12.702 | 11.944 | 9.467 |
| Araba | 6.534 | % 0,7 | 4 | 44 | 188 | 2.754 | 2.072 | 1.472 |
| Bizkaia | 12.147 | % 1,3 | 32 | 74 | 281 | 4.736 | 4.222 | 2.802 |
| Gipuzkoa | 16.361 | % 1,7 | 9 | 54 | 243 | 5.212 | 5.650 | 5.193 |
| D. neuromuskularra | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 16.823 | % 5,4 | 150 | 553 | 994 | 7.956 | 4.769 | 2.401 |
| Araba | 2.615 | % 0,8 | 29 | 97 | 215 | 1.244 | 653 | 377 |
| Bizkaia | 8.068 | % 2,6 | 95 | 283 | 437 | 3.964 | 2.322 | 967 |
| Gipuzkoa | 6.140 | % 2,0 | 26 | 173 | 342 | 2.748 | 1.794 | 1.057 |
| Gaixotasun kronikoa | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 27.037 | % 4,7 | 127 | 356 | 855 | 11.260 | 9.845 | 4.594 |
| Araba | 5.207 | % 0,9 | 26 | 92 | 199 | 2.157 | 1.787 | 946 |
| Bizkaia | 12.965 | % 2,3 | 91 | 199 | 433 | 5.534 | 4.771 | 1.937 |
| Gipuzkoa | 8.865 | % 1,5 | 10 | 65 | 223 | 3.569 | 3.287 | 1.711 |
| D. intelektuala | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 9.964 | % 3,5 | 172 | 857 | 2.085 | 5.779 | 940 | 131 |
| Araba | 1.087 | % 0,4 | 37 | 109 | 224 | 583 | 116 | 18 |
| Bizkaia | 6.171 | % 2,2 | 79 | 507 | 1.326 | 3.631 | 550 | 78 |
| Gipuzkoa | 2.706 | % 1,0 | 56 | 241 | 535 | 1.565 | 274 | 35 |
| D. mentala | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 26.312 | % 4,5 | 295 | 1.658 | 2.392 | 14.863 | 5.070 | 2.034 |
| Araba | 1.804 | % 0,3 | 88 | 218 | 254 | 942 | 215 | 87 |
| Bizkaia | 15.404 | % 2,7 | 133 | 1.136 | 1.506 | 8.775 | 2.887 | 967 |
| Gipuzkoa | 9.104 | % 1,6 | 74 | 304 | 632 | 5.146 | 1.968 | 980 |
| Ikusmeneko d. | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 9.823 | % 4,5 | 33 | 161 | 414 | 3.666 | 3.074 | 2.475 |
| Araba | 1.809 | % 0,8 | 11 | 27 | 89 | 706 | 521 | 455 |
| Bizkaia | 4.965 | % 2,3 | 18 | 99 | 189 | 1.840 | 1.572 | 1.247 |
| Gipuzkoa | 3.049 | % 1,4 | 4 | 35 | 136 | 1.120 | 981 | 773 |
| Entzumeneko d. | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 10.671 | % 5,4 | 60 | 190 | 379 | 3.622 | 3.627 | 2.793 |
| Araba | 1.369 | % 0,7 | 10 | 42 | 68 | 551 | 409 | 289 |
| Bizkaia | 5.943 | % 3,0 | 40 | 102 | 209 | 1.982 | 2.167 | 1.443 |
| Gipuzkoa | 3.359 | % 1,7 | 10 | 46 | 102 | 1.089 | 1.051 | 1.061 |
| Gor-itsutasuna | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 34 | % 3,3 | 0 | 1 | 0 | 10 | 13 | 10 |
| Araba | 7 | % 0,7 | 0 | 0 | 0 | 2 | 2 | 3 |
| Bizkaia | 22 | % 2,1 | 0 | 1 | 0 | 6 | 9 | 6 |
| Gipuzkoa | 5 | % 0,5 | 0 | 0 | 0 | 2 | 2 | 1 |
| Adierazteko d. | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
| EAE | 865 | % 5,3 | 2 | 40 | 46 | 307 | 364 | 106 |
| Araba | 88 | % 0,5 | 0 | 0 | 3 | 21 | 32 | 32 |
| Bizkaia | 539 | % 3,3 | 0 | 8 | 27 | 199 | 252 | 53 |
| Gipuzkoa | 238 | % 1,5 | 2 | 32 | 16 | 87 | 80 | 21 |

| Mistoa | Kop. | Guztizkoaren gaineko %a | < 7 urte | 7-17 urte | 18-34 urte | 35-64 urte | 65-79 urte | > 80 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 1.814 | % 1,6 | 47 | 91 | 130 | 716 | 430 | 400 |
| Araba | 1.156 | % 1,0 | 17 | 47 | 99 | 555 | 273 | 165 |
| Bizkaia | 515 | % 0,4 | 27 | 35 | 21 | 121 | 118 | 193 |
| Gipuzkoa | 143 | % 0,1 | 3 | 9 | 10 | 40 | 39 | 42 |
| **Bestelakoak** | **Kop.** | **Guztizkoaren gaineko %a** | **< 7 urte** | **7-17 urte** | **18-34 urte** | **35-64 urte** | **65-79 urte** | **> 80 urte** |
| EAE | 1.511 | % 1,8 | 18 | 78 | 175 | 544 | 379 | 317 |
| Araba | 66 | % 0,1 | 0 | 9 | 9 | 29 | 10 | 9 |
| Bizkaia | 65 | % 0,1 | 5 | 2 | 6 | 18 | 18 | 16 |
| Gipuzkoa | 1.380 | % 1,6 | 13 | 67 | 160 | 497 | 351 | 292 |

*Gertatzen den lehenengo urritasun motak, adinaren arabera. 2021. urtea. Iturria: Imserso*

## 3.3. Eraikin eta instalazio judizialen irisgarritasuna

- 16/1983 Dekretuak hainbat xedapen ezarri zituen sarbide publikoko eraikinetako arkitektura-elementuen diseinuaz, oztopoak desagerrarazte aldera. Alabaina, irisgarritasun-irizpideok laxoagoak ziren 68/2000 Dekretuaren bidez onetsitakoak baino (Euskal Autonomia Erkidegoan Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea garatzen duena).

  Hala, azken dekretu horrek (indarrean jarraitzen du) onetsitako arau teknikoak *irisgarritasun*-irizpide orokorrak ezartzen ditu; esaterako, tokiek, korridoreek eta ateek gutxieneko zabalera handiagoa eduki behar dute; arrapaletan gehieneko maldak txikiagoa izan behar du; eta komunikazio-elementuen ezaugarriek hobeak izan behar dute.

  Eraikinak handitu, birgaitu edo aldatzeko obretan, nahitaez bete behar dira irizpideok, ezaugarri orografikoengatik, egiturazko ezaugarriengatik edo formagatik aplikatu ezin direnean salbu. Horrelakoetan, *praktikagarritasun*-irizpideak bete behar dira, 1983ko arauan zehazten direnak.

- EAEko justizia-jauregiak 1991tik 2000ra bitartean eraiki ziren, eta guztiek betetzen dituzte 16/1983 Dekretuan ezarritako irizpideak (gutxienez, ibilgarriak dira, indarreko araudiaren arabera).

- Ondoren, hainbat jarduketa egin dira; hala nola, Donostiako San Martin kaleko justizia-jauregia birgaitu zuten 2005ean; Azpeitiko justizia-jauregia birgaitu zuten 2008an, eta Getxoko justizia-jauregia handitu zuten 2013an. Era berean, 68/2000 Dekretuan jasotzen diren irisgarritasun-irizpideak aplikatu dira unean uneko beste jarduketa batzuetan (toki-faltagatik ezin izan denean, praktikagarritasun-irizpideak aplikatu dira).

- Bi eraikin berrietan, zeinak obretan edo goitik behera birgaitzeko proiektuan sartuta baitaude (Ibañez de Bilbao kaleko justizia-jauregia eta Bizkaiko Probintzia Fiskaltza), gaur egungo irisgarritasun-irizpide guztiak betetzen dira.

I. eranskinean jasotzen dira eraikinen irisgarritasunari buruzko datuak. Hona hemen garrantzitsuenak:

## Eraikinetako sarrerak

- 19 eraikin judizialetatik 13k espaloian bertan daukate sarrera; hortaz, ez dute arrapalarik behar jendea sar dadin.
- Albiako justizia-jauregiko sarrera nagusiak arrapalarik gabeko mailadia dauka, eta jendeak ondoko eraikinetik sartu behar du (Barroetatik). Albiak albo batean bakarrik dauka arrapala, eta ez da jendearentzat.
- Gainerako eraikin judizialetan, arrapalak sarrera nagusian daude.
- Gernikako justizia-jauregiak espaloian bertan dauka sarrera; segurtasun-gunea igarotakoan, baina, hiru maila daude, eta jasogailu bat dago maila horiek saihesteko.
- Arrapalak, oro har, ibilgarriak dira. Donostiakoak (San Martin) eta Azpeitikoak bakarrik betetzen dituzte 68/2000 Dekretuan zehazten diren irisgarritasun-irizpideak, zabalerari eta maldari dagokienez.
- Eraikinetara sartzeko ateak ez dira automatikoak, eta eskuz irekitzen dira.
- Sarreretako ateak eta sarbideak kontrolatzeko gailuak, oro har, ibilgarriak dira. Eraikin berriek eta San Martin kaleko justizia-jauregiak bakarrik betetzen dituzte irisgarritasun-irizpideak (1,80 m biratzeko, eta 0,90 m-ko zabalera duen sarrera alternatibo bat 10 m-ra).
- Kaletik Atotxako justizia-jauregiko ezkontza-aretora zuzenean sartzeko bidea ez da irisgarria. Lehenengo solairuan dago, eta eskailerak baino ez daude (ez arrapalarik, ez jasogailurik). Albiako ezkontza-aretora iristeko, sarrera nagusitik sartu behar da, eta ez da irisgarria.

## Barruko eremuen mugikortasuna

- Barruko korridoreak irisgarriak dira Getxoko zabalkuntzan eta San Martinen (korridore nagusien gutxieneko zabalera 1,80 m-koa da, eta bigarren mailakoetan 1,20 m-koa; elkartzeko eta biratzeko azalerak 1,50 m x 1,50 m-koak dira, hasieran eta amaieran), eta ibilgarriak gainerakoetan (gutxieneko zabalera 1,10 m-koa da, eta 1,40 m-ko zirkulu librea dute hasieran eta amaieran).
- Eraikin judizialetako barruko ateak irisgarriak dira (0,90 m-ko gutxieneko zabalera) Getxoko zabalkuntzan eta San Martinen, eta ibilgarriak gainerakoetan (0,80 m-ko gutxieneko zabalera).

## Igogailuak

- Eraikin judizial guztietako solairu guztietan daude igogailuak, Eibarko justizia-jauregiko goiko solairuan izan ezik (liburutegia).
- Igogailuen barruko eta kanpoko botoiak gurpil-aulki batetik iristeko moduko altueran daude.
- Kabinen neurriak irisgarriak dira jendeak oro har erabiltzeko igogailu gehienetan. Amurrioko, Bilbo-Buenos Airesko, Barakaldoko eta Balmasedako justizia-jauregietan, igogailu publikoak ibilgarriak baino ez dira (1,20 m-ko gutxieneko sakonera eta 0,90 m-ko zabalera).

### Epaiketa-aretoak eta beste gela batzuk

- Eraikin guztietako atondoek biratzeko toki ibilgarria dute (oztoporik gabeko 1,40 m gutxienez); San Martinekoa, baina, irisgarria da (1,50 m).
- Epaiketa-aretoetako oholtzak eta profesionalentzako, akusatuentzako eta lekukoentzako tokiak, oro har, ibilgarriak dira. San Martingo behe-solairukoak eta Getxoko zabalkuntzakoak bakarrik dira irisgarriak.

  San Martingo lehenengo solairuko bi epaiketa-aretotan, oholtzak ez dira irisgarriak gurpil-aulkian doazenentzat.
- San Martinen eta Getxoko zabalkuntzan, epaiketa-aretoetako publikorako tokiak irisgarriak dira; gainerako eraikin judizialetan, berriz, ibilgarriak.

### Komunak

- Justizia-jauregietako komun guztiak ibilgarriak dira gurpil-aulkian doazen pertsonentzat, bai kokapenagatik, bai barruko ezaugarriengatik eta instalazio sanitarioengatik. San Martingoek eta Getxoko zabalkuntzakoek 2000. urteko irisgarritasun-irizpideak betetzen dituzte (bi barra lagungarri eskatzen dituzte, eta xehetasun handiagoz zehazten dituzte elementu guztien neurriak).

### Seinaleztapena

- Sarreran eskailera duten eraikin gehienek eskubanda daukate, ingurunearekin kontraste kromatikoan, baina gaur egun funtzionamenduan dagoen batek ere ez dauzka eskailera-mailak kontraste handiko zerrendekin markatuta.
- Sarrerako atean kristala daukaten eraikin judizial gehienetan, ateak ez daude seinaleztatuta kontraste kromatiko handiko zerrendekin, Balmasedakoan, Getxokoan, Gernikakoan, Atotxakoan eta Gasteizkoan izan ezik.
- Justizia-jauregietako atondoetan, informazio-kartelak eta seinaleztapena ez daude gurpil-aulkian doazen pertsonen eskueran. Halere, kontraste kromatiko handian diseinatuta daude.
- Gaur egungo eraikin batean ere ez dago baldosa podotaktilik, ezta gida-zerrendarik ere, sarreretan eta atondoetan; halaber, lurzoruan ez dago ibilbiderik markatuta.
- Barruko eskaileretako mailek ez daukate kontraste handiko zerrendarik.
- Igogailuen barruko eta kanpoko botoiek, oro har, ez daukate ez erlieberik, ez kontraste kromatikorik.
- Eraikin judizial guztietan, mugikortasun murriztua dutenentzat egokitutako komunak seinaleztatuta daude.
- Eraikin judizial gehienetan, ateen eta hormen artean ez dago kontraste kromatikorik. Batzuetan, epaiketa-aretoetako ateak kontrastatuta daude (Gasteizen, Amurrion, Albian eta San Martingo entzutegian). Barroetak, Buenos Airesek, Barakaldok eta Durangok bai, kontraste kromatikodun ateak dauzkate.

- Eraikin guztietako barruko seinaleek eta informazio-kartelek kontraste handia dute irudiaren eta atzealdearen artean. Ez dago seinalerik ez goi-erliebean, ez braillean, ezta irakurketa errazera egokitutakorik ere.
- Direktorio batzuek alderantziz irudikatzen dituzte solairuak (goikoak behean): Bergara.

## 3.4. Komunikazio- eta ulermen-oztopoak

Desgaitasun motaren arabera, Justizia Administrazioarekin komunikatzeko oztopo desberdinak daude. Komunikazio-oztopoek zaildu egiten dute pertsonek gauzak nahi bezala adieraztea eta ondo ulertu eta artatu ditzaten lortzea. Ulermen-oztopoek galarazi egiten dute hartzaileek tokian bertan igortzen diren mezuak hautematea edo ulertzea.

- Eraikin judizialetako informazio-gune batek ere ez dauka indukzio magnetikoko begiztarik, maiztasun modulatuko sistemarik edo entzumen-urritasuna dutenentzako bestelako laguntza teknikorik. Halaber, ez dago horrelako gailurik ez epaiketa-aretoetan, ez bestelako geletan.
- Jendeari eskaintzen zaion informazioa ez dago egokituta desgaitasun intelektuala edo garapenekoa, desgaitasun neurologikoa edo osasun mentaleko arazoak dauzkaten pertsonen premietara. Ez dago ulermenean laguntzeko komunikazio-elementu alternatiborik.
- Jendeari arreta emateko erakusmahaien kokapena eta altuera irisgarriak dira gurpil-aulkian doazen pertsonentzat, Getxon eta San Martinen. Eraikin batzuetan, baina, erakusmahai guztiek ez dute gurpil-aulkian ibiltzen direnei arreta emateko tarterik (Amurrio, Bergara, Durango, Gernika eta Tolosa). Jendeari arreta emateko gune batzuek, nahiz eta bi altuera eduki, ez daukate sakonera nahikorik erakusmahaiaren azpian (Irun).
- Informazio-agirietan, dokumentazio judizialetan eta jakinarazpenetan papera bakarrik erabiltzeak zaildu egiten du ikusmen-urritasuna dutenentzako bestelako komunikazio-moldeetara azkar igarotzea.
- *justizia.eus* ataria eta egoitza judizial elektronikoa 2021ean berritu zituzten, eta irisgarritasun-estandarrekin bat etorriz diseinatuta daude; hala, nahitaezko diagnostikoak gainditu dituzte.[5]

  Atarietan argitaratutako eduki bat bera ere ez dago irakurketa errazera egokituta.
- Hizkuntza juridikoa bera oztopo bat da.
- Inkesta bete duten gehienek sentitu dute desgaitasunagatik murriztu zitzaiela prozesu judizialean parte hartzea; bereziki, ikusmen-desgaitasuna eta desgaitasun intelektuala edo garapenekoa zuten pertsonek.
- Oro har, ez da ematen gauzak ondo adierazteko behar den denbora.
- Batzuetan, hautematen dute emandako lekukotza edo ez dela sinetsi, edo ez dela ondo ulertu.

[5] UNEEN301549:2019 Jarraipen Sinplifikatuko Metodologia, arau honetan oinarritua: EN 301 549 V2.1.2 (2018-08), IKT produktu eta zerbitzuetarako irisgarritasun-betekizunak.

- Askotan, ez dute ulertzen prozesuan jasotako informazioa; bereziki, desgaitasun intelektuala edo garapenekoa duten pertsonek.
- Oro har, ez dute ulertzen epaileek, fiskalek edo letraduek erabiltzen duten hizkuntza.

## 3.5. Prozedura-doikuntzak

- Epaiketaren bat edo lege-prozesuren bat –hobeto ulertu eta jarraitu ahal izate aldera– egokitzea eskatu dutenek adierazi dute zailtasunak izan dituztela eskabidea eta izapidea egitean (egin behar diren urratsak oso edo nahiko konplexuak dira).
- Kasuen erdietan baino gehiagotan, prozedura doitzea eskatu dutenek uste dute prozesua ez dela ondo egokitu.
- Oro har, beharko dituenak berak ekartzen ditu laguntzak (familiakoak edo fundaziokoak izaten dira).

## 3.6. Prestakuntza

Desgaitasuna duten pertsonek oinarrizko eskubideak baliatzeko orduan eta irisgarritasuna bermatua izateko orduan duten oztoporik nagusietako bat da haiekin harremanetan daudenen kontzientzia- edo gaikuntza-falta. Justizia Administrazioa ez da salbuespena:

- Inkesta bete dutenen erdiek baino gehiagok baieztatu dute Justizia Administrazioko profesionalak (epaileak, fiskalak edo Justizia Administrazioko letraduak) ez zeudela prestatuta desgaitasuna duten pertsonak artatzeko. Haiekin harremanetan jarritako abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak ere ez zeuden gaituta, nahiz eta neurri txikiagoan izan.
- Oro har, askotariko premiak dauzkaten pertsonekin elkarreraginean aritzen jakiteko prestakuntza espezifikoa behar da.

## 3.7. Hautemandako tratua

- Inkesta bete duten gehienek baieztatu dute ez direla diskriminatuta sentitu Justizia Administrazioarekiko tratuan.
- Inkesta bete dutenen erdiek baino gutxiagok adierazi dute tratu hurbila eta enpatia hauteman dituztela.
- Inkestan iruzkinak egiteko zeuden atal irekietan, hainbat pertsonak adierazi dute denbora-falta eta presak izan direla prozesuan aurkitutako oztopo nagusiak. Justizia Administrazioan lan egiten dutenei kosta egiten zaie hitz egokiak aurkitzen tardatzen dutenei itxarotea.
- Bestetik, adierazi dute profesionalek ez diotela interesdunari zuzenean hitz egiten, haren laguntzaileari zuzentzen baitzaizkio.

## 3.8. 8/2021 Legea indarrean jarri aurretik ezintasun-prozeduretan hartutako neurrien berrikuspenak

| | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA |
|---|---|---|---|
| Hasieran berrikuspena hasi gabe dutenak | 1.476 | 2.700 | 6.617 |
| Aurretik hasitako berrikuspenak | 0 | 0 | 0 |
| Hasitako berrikuspenak | 1.115 | 616 | 2.526 |
| Amaitutako berrikuspenak | 747 | 180 | 905 |
| Hasi baina amaitu gabeko berrikuspenak | 368 | 436 | 1.634 |
| Amaieran berrikuspena hasi gabe dutenak | 405 | 2.508 | 4.328 |

*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuak, 2022ko abenduaren 31koak.*

Organo judizial bakoitzak bere irizpideen arabera antolatzen ditu berrikuspenak: 8/2021 Legearen 5. artikuluak ezartzen du agintaritza judizialak neurri horiek berrikusi behar dituela, baina ez du ezartzen berrikuspena egiteko prozedurarik. Organo judizial batzuek ahalik eta gehien sinplifikatu dute izapidea, tartean diren alderdi guztien eskubideak bermatuz.

Legea indarrean jarri ondoren, gainera, espediente berriak izapidetzeko eta lege berriaren araberako berrikuspenak egiteko prestakuntza-ikastaro espezifikoak egin ziren. Halaber, errefortzuko funtzionarioak sartu dituzte, prozedura horietan bakarrik aritu daitezen.

Organo judizial batzuetan, organoaren beraren antzinatasuna da berrikuspenak arintzea zailtzen ari den elementua. Gasteizko lehen auzialdiko eta instrukzioko 8. epaitegia 2009an sortu zen, eta, orduan, jada bereizita erregistratzen ziren ahalmena aldatzeko espedienteak; hortaz, espediente horiek aurkitu ahal izan dira, eta ofiziozko berrikuspenak erraz abiatzeko egutegia egin dute.

## 3.9. Diagnostikoaren elementurik garrantzitsuenak

Inkestetan eta kontraste-saioetan gehien errepikatu dena bat dator aztertutako dokumentaziotik ateratako ondorio orokorrekin. Hala,

### Honako hau falta zaigu:

- Erraztailearen (edo bitartekariaren) irudia garatzea.

  Pertsona horiek, beharrezkoa denean, justizia-sistemako langileekin eta desgaitasuna duten pertsonekin egiten dute lan, legezko prozeduretan komunikazio eraginkorra egongo dela ziurtatzeko. Desgaitasuna duten pertsonei erabaki informatuak ulertzen eta hartzen laguntzen diete, gauzak ulertu ahal izateko moduan azaltzen direla eta hitz egiten dela, eta egokitzapen eta laguntza egokiak ematen direla ziurtatuta. Bitartekariak neutralak dira; ez

dute hitz egiten desgaitasuna duten pertsonen izenean, ez eta justizia-sistemaren izenean ere, eta ez dituzte erabakiak edo emaitzak zuzentzen edo haiengan eragiten[6].

- Irisgarritasun kognitiboa bermatzea, bai laguntzen bidez, bai testuak irakurketa errazera egokituz.
- Seinaleak hobetzea, ibilbideak eta planoak irisgarriak egitea (eraikinen barrualdean mugitu ahal izateko) eta zerbitzuen kokapena hobetzea.
- Justizia Administrazioko langileak trebatu, gaitu eta sentsibilizatzea, beharrezko diren tresnak izan ditzaten, desgaitasuna duten pertsonak justiziara besteen baldintza berberetan eta modu eraginkorrean iristeko.

### Honetan aurrera egin dugu:

- Justizia Administrazioan, desgaitasuna duten pertsonek eskubideak erabat eta gainerakoen baldintza berberetan baliatzeko ikuspegia barneratu da jada.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak erregulatzen dituen arau-esparrua zabala da, eta, azken urteetan, justiziarako irispidea errazteko hainbat egitasmo abiatu dira. Askotariko administrazioek eta operadore juridikoek txostenak, jarduteko planak eta jardunbide egokien dokumentuak zabaldu dituzte.
- Hizpide dugun plangintza-prozesua bera parte-hartzezkoa da, operadore juridikoak, administrazio orokorra eta elkarteak lankidetzan aritzen baitira, eta ondo baloratzen da hori.
- Lehen auzialdiko epaitegi espezializatuetan komunikabide alternatiboak eta bestelako laguntzak eskaintzeko urratsak egiten ari dira dagoeneko.

[6] NBE (2020). Nazioarteko printzipioak eta jarraibideak, desgaitasuna duten pertsonak justiziara iristeari buruzkoak, 9. or.

# 4. Zer garen eta nola nahi dugun ikus gaitzaten

## 4.1. Misioa

Euskal Autonomia Erkidegoan justizia-zerbitzu publikoa ematen dugun administrazioak, erakundeak, kolektiboak eta entitateak gara, eta justiziara iristea eta eskubideak baliatzea bermatzen diegu desgaitasuna duten pertsonei.

## 4.2. Ikuspegia

EAEko justizia-zerbitzu publikoa honengatik da ezaguna:

- Oztopoak identifikatu eta kentzeagatik eta ingurune fisiko, teknologiko eta material irisgarriak ziurtatzeagatik.
- Desgaitasunak ezagutzeagatik eta, pixkaka, desgaitasuna duten pertsonetara egokitzeagatik.
- Justiziarekiko harremanean desgaitasuna duten pertsonen autonomia indartzeagatik eta haiek gainerakoen baldintza berberetan jardun ahal izatea bermatzeagatik.

# 5. 2023-2027ko DPJSParen ekintza-plana

## 5.1. Ildo estrategikoak eta helburuak

| Ildoa | Deskribapena | Helburuak |
|---|---|---|
| 1.IE Justiziarako sarbidea | Pertsonak Justizia Administraziora hurbiltzeko moduak edo arrazoiak aztertzea, desgaitasuna duten pertsonei sarbidea zailtzen dieten oztopoak detektatu eta kentzeko | 1. Desgaitasuna duten pertsonak orientazio juridikoko zerbitzuetarako eta doako justiziako zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatzea. |
| | | 2. Erabiltzaileekin zuzenean harremanetan egoten diren profesionalen ezagutzak hobetzea, desgaitasun motetan eta eskubideak baliatzeko behar izan ditzaketen laguntzetan. |
| | | 3. Desgaitasuna duten biktimei arreta egokia bermatzea. |
| | | 4. Desgaitasuna duten atxilotuei edo ikertuei arreta egokia bermatzea. |

| | | |
|---|---|---|
| 2.IE Egoitza judizialetarako sarbidea | Egoera aztertzea, egoitza judizial fisikoen nahiz egoitza judizial elektronikoaren irisgarritasuna bermatzeko | 1. Eraikin judizialetako guneak, ibilbideak eta elementu fisikoak erabiltzaileen askotariko premietara eta mugetara egokitzea. |
| | | 2. Egoitza judizialen irisgarritasuna hobetzea, laguntza-teknologiak sartuz. |
| | | 3. Desgaitasuna duten pertsonek Justizia Administraziorako sarbidea izatea bermatzea, gainerakoen baldintza berberetan. |

| | | |
|---|---|---|
| 3.IE Prozeduretarako irispidea | Desgaitasuna duten pertsonek prozedura juridikoetan eta fase guztietan eskubideak gainerakoen baldintza berberetan baliatzeko behar diren laguntza eta doikuntza guztiak egitea | 1. Laguntza-neurri judizialez hornitzeko prozeduretan, desgaitasuna duten pertsonen borondatea, nahiak eta lehentasunak errespeta daitezen bermatzea. |
| | | 2. Beharrezko diren prozedura-doikuntzak errazteko sistema bat edukitzea, pertsonen askotariko premiak kontuan har daitezen. |
| | | 3. Justizia Administrazioak berak hornitu ditzala prozedura judizialetan pertsona guztiek parte hartzeko behar diren laguntzak. |

| | | |
|---|---|---|
| 4.IE Ezagutza | Ezagutza bi norabidetan hobetzea: Justizia Administrazioak sortzen eta transmititzen duen informazioaren irisgarritasuna hobetzea, askotariko premiak dauzkaten erabiltzaileentzat baliagarria izango den informazio espezifikoa sortuz, eta Justizia Administrazioak desgaitasuna duten pertsonen premien inguruan dituen ezagutzak hobetzea. | 1. Justizia Administrazioak ematen duen informazioaren irisgarritasuna bermatzea. |
| | | 2. Eskubideak baliatzeari buruzko eta Justizia Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio espezifiko eta eguneratua sortzea eta desgaitasuna duten pertsonen esku jartzea. |
| | | 3. Justizia Administrazioko profesionalen ezagutzak hobetzea, desgaitasun motei buruzkoak eta eskubideak baliatzeko behar izan ditzaketen laguntzei buruzkoak. |
| | | 4. Justizia Administrazioko langileen gaitasuna hobetzea, arreta egokia eman diezaieten askotariko premiak dauzkaten pertsonei. |

## 5.2. Proiektuak, ildo estrategikoen arabera

### 1.IE Justiziarako sarbidea

- 01.P. Doako justiziarako sarbidea
- 02.P. Laguntza espezializatua desgaitasuna duten biktimei
- 03.P. Desgaitasuna duten atxilotuei edo ikertuei laguntza espezializatua ematea

### 2.IE Egoitza judizialetarako sarbidea

- 04.P. Irisgarritasun unibertsala ingurune fisikoetan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin
- 05.P. Baliabide teknologikoak sartzea irisgarritasunerako
- 06.P. Egoitza judizial elektronikorako sarbidea

### 3.IE Prozeduretarako irispidea

- 07.P. Laguntza-neurri judizialak hornitzeko prozedurak hobetzea
- 08.P. Prozesu judizialetan prozedura-egokitzapenetarako eta -doikuntzetarako laguntza-zerbitzuak sortzea
- 09.P. Prozedura-doikuntzen katalogazioa
- 10.P. Erraztaileen programa sortzea

### 4.IE Ezagutza

- 11.P. Irisgarritasun unibertsala materialetan eta edukietan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin
- 12.P. Informazio espezializatua
- 13.P. Prestakuntza eta sentsibilizazioa

## 5.3. Proiektuen fitxak

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1.IE. Justiziarako sarbidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 01.P. Doako justiziarako sarbidea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Beharrezko den prestakuntza espezifikoa bermatzea emakida-prozesuan esku hartzen duten pertsonei (Orientazio Juridikoko Zerbitzuko eta Doako Laguntza Juridikoko Batzordeetako langileak) eta desgaitasuna duten pertsonen laguntza juridikoaz (abokatuak) eta ordezkaritza prozesalaz (prokuradoreak) arduratzen diren pertsonei, baita Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legean eskubidea aitortuta duten elkarteei ere. |
| HELBURUAK | 1. Doako laguntza juridikoaren esparruan artatzen diren desgaitasuna duten pertsonen kasuak ezagutu eta dimentsionatzea, esku hartzen duten profesional guztiak espezializatu behar ote diren aztertzeko, hala badagokio.<br>2. Orientazio Juridikoko Zerbitzuetako eta Doako Laguntza Juridikoko Batzordeetako langileen, emakumezko prokuradoreen eta emakumezko abokatuen ezagutzak hobetzea, desgaitasun motei buruzkoak eta eskubideak baliatzean behar izan ditzaketen laguntzei buruzkoak.<br>3. Orientazio Juridikoko Zerbitzuetako eta Doako Laguntza Juridikoko Batzordeetako langileen, prokuradoreen eta abokatuen gaikuntza hobetzea, askotariko premiak dauzkatenak ondo arta ditzaten. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Desgaitasuna duten pertsonei esleitutako doako justiziako espedienteen kopurua zenbatzea (2.h) artikulua), zer delitu motaren biktima den adierazita (hilketa, lesioak, ohiko tratu txarrak, sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkakoa eta abar)<br>2. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak sustatzen eta babesten dituzten elkarteei esleitutako doako justiziako espedienteen kopurua zenbatzea (bigarren xedapen gehigarria), doako justizia esleitzea ekarri duen auzi mota adierazita.<br>3. Balorazio Batzorde bat osatzea Legelarien Euskal Kontseiluarekin, EAEn desgaitasunaren eta doako justizia-zerbitzu publikoa ematearen inguruko errealitate soziala aztertzeko eta, hala badagokio, desgaitasunaren arloko txanda espezializatu bat sortzeko.<br>4. EAEko aurrekontuetan jasotzen den prestakuntzarako urteko dirulaguntzaren esparruan edo, berariazko partida bat hornitzen bada, hortik kanpo, desgaitasunaren arloko ikastaro espezifikoak adostea Legelarien Euskal Kontseiluarekin eta Euskadiko Prokuradoreen Kontseiluarekin. Prestakuntzan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuko eta Doako Laguntza Juridikoko Batzordeetako langileak ere sartuko dira. |
| ADIERAZLEAK | • Espedienteen datuak erregistratzen hastea (2024ko 1.HIRUHIL.).<br>• Balorazio Batzordea sortzea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Ofiziozko txanda bat sortzea egokia ote den aztertzen duen txostena idaztea (2025eko 1.HIRUHIL.).<br>• Hala badagokio, ofiziozko txanda espezializatua sortzea (2025eko 3.HIRUHIL.).<br>• Egindako ikastaro espezifikoen kopurua (>1 2025eko 2.HIRUHIL.; >3 2026ko 1.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Doako Laguntza Juridikoko Zerbitzua |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Doako Laguntza Juridikoko Batzordeak<br>Legelarien Euskal Kontseilua, Euskadiko Prokuradoreen Kontseilua, Euskadiko Abokatutzako eta Prokuradoretzako Elkargo Profesionalak, Orientazio Juridikoko Zerbitzua.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honen gainerako proiektuak; bereziki, 09.P., 10.P. eta 13.P. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 1.HIRUHIL. | 2025eko 4.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 1.IE. Justiziarako sarbidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 02.P. Laguntza espezializatua desgaitasuna duten biktimei |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Desgaitasuna duten biktimei laguntzen dieten profesionalak trebatzea, premien detekzioa, banakako ebaluazioa eta laguntza-protokoloak ondo garatu daitezen. |
| HELBURUAK | 1. Desgaitasuna duten biktimei ematen zaien arreta hobetzea.<br>2. Desgaitasuna duten biktimen laguntza-premiak detektatzea<br>3. Desgaitasuna duten biktimek justiziara jotzean aurkitzen dituzten oztopoak desagerraraztea, eskubideak gainerakoen baldintza berberetan baliatu ahal izan ditzaten. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Prestakuntza espezifikoa ematea Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan, desgaitasuna duten biktimentzako arretari buruz.<br>2. Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak jarduteko protokolo espezifiko bat egitea, desgaitasuna duten biktimei laguntzeko.<br>3. Desgaitasuna duten biktimei banakako ebaluazio-txostena egiteko eredu bat sortzea, delituen biktimek oro har biltzen dituzten kalteberatasun-faktore guztiak jasota.<br>4. Desgaitasun intelektuala edo garapenekoa edo nahasmendu mentala izan dezaketen kasuetan laguntza-premiak identifikatzeko mekanismo bat egitea.<br>5. Operadore juridikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak trebatu, informatu eta sentsibilizatzea, desgaitasuna duten biktimen eskubideei buruz eta haiei laguntzeko moduei buruz.<br>6. Salaketa-prozesua egokitzea, desgaitasun intelektuala dutenek salaketak jarri ahal izan ditzaten. Salatzeko moduei buruzko dokumentu bat irakurketa errazean idaztea. |
| ADIERAZLEAK | • Biktimei Laguntzeko Zerbitzurako prestakuntza-plan espezifikoa diseinatzea. (2024ko 2.HIRUHIL.)<br>• Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan, desgaitasuna duten biktimei laguntzeko protokolo espezifikoa egitea. (2024ko 4.HIRUHIL.)<br>• Desgaitasuna duten biktimei banakako ebaluazio-txostena egiteko eredua egitea. (2024ko 4.HIRUHIL.)<br>• Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurura (>1 2025eko 2.HIRUHIL.; >4 2026ko 4.HIRUHIL.) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. JAZ. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Administrazioko Zuzendaritza. EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena.<br>Ertzaintza. BLZ. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JPE 2022-2028, 11.P. Biktimei Laguntzeko Zerbitzua sendotzea.<br>Plan honetako gainerako proiektuak. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko 1.HIRUHIL. | 2025eko 2.HIRUHIL. |

<table>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">1.IE. Justiziarako sarbidea</td></tr>
<tr><td>PROIEKTUA</td><td colspan="4">03.P. Desgaitasuna duten atxilotuei laguntza espezializatua ematea</td></tr>
<tr><td>PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA</td><td colspan="4">Desgaitasuna duten atxilotuei laguntzen dieten profesionalak trebatzea, hasiera batean ikusgai ez dauden laguntza-premiak hautemateko, polizia-etxean nahiz egoitza judizialean protokolo espezifiko bati jarraituz.</td></tr>
<tr><td>HELBURUAK</td><td colspan="4">1. Desgaitasuna duten atxilotuei ematen zaien arreta hobetzea.<br>2. Desgaitasuna duten atxilotuen laguntza-premiak detektatzea.<br>3. Desgaitasuna duten atxilotuek eskubideak gainerakoen baldintza berberetan baliatzea galarazten duten oztopoak kentzea.</td></tr>
<tr><td>FUNTSEZKO JARDUERAK</td><td colspan="4">1. Desgaitasuna duten pertsonei polizia-etxean nahiz egoitza judizialean laguntzeko arreta sartzea poliziaren atxilotze-protokoloetan.<br>2. Desgaitasun intelektuala edo garapenekoa edo nahasmendu mentala izan dezaketen kasuetan laguntza-premiak identifikatzeko mekanismo bat egitea.<br>3. Operadore juridikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak trebatu, informatu eta sentsibilizatzea, desgaitasuna duten atxilotuen eskubideei buruz eta haiei laguntzeko moduei buruz.</td></tr>
<tr><td>ADIERAZLEAK</td><td colspan="4">• Poliziaren atxilotze-protokoloak egokitzea. (2025eko 2.HIRUHIL.)<br>• Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurura (>1 2025eko 4.HIRUHIL.; >4 2026ko 4.HIRUHIL.)</td></tr>
<tr><td>ERAGILE ARDURADUNA</td><td colspan="4">Helduentzako Justizia Zerbitzua.</td></tr>
<tr><td>ERAGILE LAGUNTZAILEAK</td><td colspan="4">Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoak.<br>Justizia Administrazioko Zuzendaritza.<br>EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena.</td></tr>
<tr><td>LOTUTAKO PROIEKTUAK</td><td colspan="4">Plan honetako gainerako proiektuak.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">ERAGINA/GARRANTZIA</td><td rowspan="2">Ertaina</td><td rowspan="2"></td><td>Hasiera</td><td>Aurreikusitako amaiera-data</td></tr>
<tr><td>2025eko 1.HIRUHIL.</td><td>2025eko 4.HIRUHIL.</td></tr>
</table>

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2.IE. EGOITZA JUDIZIALETARAKO SARBIDEA |
|---|---|
| PROIEKTUA | 04.P. Irisgarritasun unibertsala ingurune fisikoetan |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Irisgarritasun fisiko, sentsorial eta kognitiboko arazoak konpontzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren eraikin eta ingurune fisikoetan. |
| HELBURUAK | 1. Askotariko kolektiboek justizia-jauregietan eskaintzen diren zerbitzuetarako sarbidea izateko, horietan mugitzeko eta horiek aurkitzeko dituzten zailtasunak ezagutzea.<br>2. Erabiltzaileen askotariko premietara eta mugetara egokitzea guneak, ibilbideak eta elementu fisikoak, neurriei, adinari, trebetasunei, indarrari eta beste ezaugarri batzuei dagokienez, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Eraikin judizial bakoitzean dauden oztopo fisikoen zerrenda egitea.<br>2. Dokumentu batean zerrendatzea eraikinen elementu arkitektonikoen irisgarritasunean egin behar diren hobekuntzak eta hobekuntza horietarako plangintza bat egitea: eraikineko sarrerak, ateak eta eremuak, hainbat mailatako espazioak. Horretarako, betiere aintzat hartuko dira Albiako Justizia Jauregiko sarrera nagusia eta Donostiako Justizia Jauregiko Ezkontza Aretoko sarrera.<br>3. Dokumentu batean zehaztea irisgarritasunean egin gabe dauden hobekuntzak, seinaleei eta ibilbide irisgarriei dagokienez, eta horiek lantzeko plangintza bat egitea.<br>4. Plangintza hori bat etorri beharko da Egoitza Judizialen Planak (2022-2030) eraikin bakoitzerako zehazten dituen jarduketekin. |
| ADIERAZLEAK | • Oztopo fisikoen zerrenda egitea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Elementu arkitektonikoen hobekuntzak planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.)<br>• Seinale-eta komunikazio-elementuen hobekuntzak planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.)<br>• Epe barruan egindako jarduketen ehunekoa, aurreikusien aldean (>% 70) (2026ko 4.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Plangintza eta Obra Zerbitzua (Justizia Digitaleko eta Azpiegituretako Zuzendaritza). |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, langileen ordezkariak, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena.<br>ISEK. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | EJP 2022-2030. 5.P. Irisgarritasun-premiei erantzunez.<br>Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 3.HIRUHIL. | 2030eko EJParekin |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2.IE. EGOITZA JUDIZIALETARAKO SARBIDEA |
|---|---|
| PROIEKTUA | 05.P. Egoitza judizialetan laguntza teknologikoak sartzea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Merkatuan dauden laguntza teknologikoko tresnak aplikatzea egoitza judizialetan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin. Adibidez, informazio-totemak, begizta magnetikoak, SVIsual, braille-lerroak, ahots sintetikoko sistemak, azpitituluak... |
| HELBURUAK | 1. Egoitza judizialen irisgarritasuna hobetzea, laguntzeko teknologiak sartuta.<br>2. Dauden teknologiak irisgarritasun unibertsaleko irizpideetara egokitzea.<br>3. Teknologiaren aurrerapenak aprobetxatzea, egoitza judizialetan komunikatzeko bestelako moduak egon daitezen. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Egoitza judizialetan funtzionamenduan dauden teknologien irisgarritasunaren diagnostikoa egitea.<br>2. Diseinu unibertsalaren ezaugarriak ez dauzkaten egoitza judizialetako baliabide teknologikoak egokitzea, arrazoizko doikuntzen irizpidearen pean.<br>3. Egoitza judizialetan bestelako komunikabide batzuk beharko lituzketen puntu giltzarrien zerrenda egitea (erakusmahaiak, epaiketa-aretoak...), zer motatako baliabideak beharko liratekeen adierazita.<br>4. Laguntzeko teknologien egoera orokorrari eta teknologia horiek egoitza judizialetako puntu horietan aplikatzeari buruzko txostena egitea.<br>5. Laguntza teknologiko egokiak sartzea, arrazoizko doikuntzen irizpidearen pean. |
| ADIERAZLEAK | • Teknologien irisgarritasunaren diagnostikoa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Puntu giltzarrien zerrenda, proposamena eta irtenbideen ebaluazioa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Ezarpena planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.).<br>• Epe barruan egindako jarduketen ehunekoa, aurreikusien aldean (>% 70 urtean) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Instalazio eta Ekipamenduen Zerbitzua (Justizia Digitaleko eta Azpiegituretako Zuzendaritza). |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, langileen ordezkariak, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Hirugarren sektore soziala, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena.<br>ISEK. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | EJP 2022-2030. 5.P. Irisgarritasun-premiei erantzunez.<br>Justizia 2030 – 7.2.P. Irisgarritasuna eta desgaitasuna.<br>Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 3.HIRUHIL. | 2026ko 4.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 2.IE. EGOITZA JUDIZIALETARAKO SARBIDEA |
|---|---|
| PROIEKTUA | 06.P. Egoitza judizial elektronikorako sarbidea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Egoitza judizial elektronikoak irisgarritasun fisiko, sentsorial eta kognitiboaren arloan izan ditzakeen arazoak konpontzea. Justizia Digitalaren 2021-2026ko Planean garatzen da, 10.P. proiektuan. |
| HELBURUAK | 1. Desgaitasuna duten pertsonek Justizia Administraziorako sarbidea izatea bermatzea, gainerakoen baldintza berberetan.<br>2. Profesionalentzako zerbitzuen atariaren irisgarritasuna bermatzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 2021-2026ko JDPan garatzen.<br><br>EAEko justizia-sistemako aplikazioen katalogoa aztertzea (Avantius, Profesionalen Ataria, Justizia-IkusBI, Justizia.eus eta aplikazio osagarriak), irisgarritasunaren eta erabilgarritasunaren estandarrak bete ditzaten.<br><br>*justizia.eus* ataria eta aplikazio eramangarriak direla-eta, ebaluatzea betetzen ote dituzten 1112/2018 Errege Dekretuan ezarritako irisgarritasun-irizpideak eta, behar izanez gero, irizpide horiek betetzeko neurri zuzentzaileak ezartzea. |
| ADIERAZLEAK | • Irisgarritasun-testa gainditzea (eguneratu ahala).<br>• Irisgarritasun-ikuskapena egitea (urtekoa). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Antolaketaren eta Informazio Sistemen Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, langileen ordezkariak, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | JDP 2021-2026, 10.P. Inklusio digitalaren plana, sarbidea erraztu eta arrakala digitala ezabatzekoa. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2023ko 2.HIRUHIL. | 2023ko 4.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3.IE. Prozeduretarako irispidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 07.P. Laguntza-neurri judizialak hornitzeko prozedurak hobetzea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Laguntza-neurri judizialak hartzen laguntzeko ekintzak biltzen ditu proiektuak (hala nola, kuradoretza, zaintza edo defendatzaile judiziala), estandar eta irizpide homogeneoak ezarriz eta prozedura horietan txostenak ematen dituzten edo erabakiak hartzen dituzten askotariko instantzia instituzionalak aintzat hartuz. |
| HELBURUAK | 1. Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea hobetzea.<br>2. Laguntza-neurri judizialak hornitu eta hartzeko irizpideak homogeneoak izatea.<br>3. Laguntza-neurri judizialak hornitzean desgaitasuna duten pertsonen borondatea, nahiak eta lehentasunak aintzat har daitezen laguntzea eta haien duintasuna nahiz premia- eta proportzionaltasun-printzipioak errespeta daitezen bermatzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. 8/2021 Legea indarrean jarri aurretiko ezintasun-epaiak berrikuste aldera egindako ekintzak ebaluatzea.<br>2. Hala badagokio, lege horren aurretiko ezintasun-epaiak berrikusten amaitzeko neurri osagarriak hartzea.<br>3. Desgaitasuna duten pertsonei laguntza-neurrien ebaluazio-irizpenak eta -txostenak egiteko estandarrak sustatzea auzitegi-medikuntzaren, talde psikosozialen, udaletako eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzuen, egoitza-baliabideetako gizarte-langileen edo gizarte-langile soziosanitarioen eremuetan.<br>4. Justizia Administrazioaren eta foru-aldundien mendeko lehengo tutoretza-erakundeen arteko elkarrizketari bide ematea, bai tutoretzaren irudiaren eragina aztertzeko, bai bestelako laguntza-tresnak jartzeko irudi horren ordez (adibidez, zaintza, kuradoretza eta defendatzaile judiziala).<br>5. Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen aitortza ofiziala arauz garatu dadin sustatzea, Justizia Administrazioaren entitate laguntzaileak baitira eta desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurri judizialen hornidura-prozesuetan informatzeko gaituta baitaude. |
| ADIERAZLEAK | • 8/2021 Legea indarrean jarri aurretiko ezintasun-epaiak berrikusteko ekintzak ebaluatzea (2023ko 3.HIRUHIL.).<br>• Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurrien ebaluazio-irizpenak eta -txostenak egiteko estandarrak onestea (2024ko 2.HIRUHIL.).<br>• Justizia Sailak, Justizia Administrazioak eta foru-aldundien tutoretza-erakundeek egindako bileren kopurua (>2 2024ko 2.HIRUHIL.).<br>• Justizia Administrazioari laguntzen dioten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak ofizialki aitortzeko legea garatzea eta araua argitaratzea (2025eko 4.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Gizarte Politiketako Zuzendaritza, Justizia Administrazioko Zuzendaritza,<br>EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza.<br>Euskal Herriko Notario Elkargoa.<br>Foru-aldundiak. Tutoretza-erakundeak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2023ko 3.HIRUHIL. | 2025eko 4.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3.IE. Prozeduretarako irispidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 08.P. Prozesu judizialetan prozedura-egokitzapenetarako eta -doikuntzetarako laguntza-zerbitzuak sortzea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Prozesu judizialetan beharrezkoa denean prozedura-egokitzapenak eta -doikuntzak egin ahal izateko zerbitzuen, baliabideen, bitartekoen, mekanismoen eta estrategien multzo bat eratzea, desgaitasuna duten pertsonak baldintza berberetan iritsi ahal izan daitezen justiziara. |
| HELBURUAK | 1. Prozesu judizialetan, beharrezkoa denean, prozedura-egokitzapenak eta -doikuntzak egin ahal izateko baliabideen, bitartekoen eta estrategien multzo bat edukitzea.<br>2. Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea hobetzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Sektorearteko batzorde edo lantalde bat sortzea egokitzapen- eta doikuntza-sistemaren eraketa koordinatzeko; dauden baliabideen mapa egin beharko du, eta askotariko organismoak eta erakundeak antolatzeko irizpideak egin.<br>2. Braille hizkuntzako zerbitzuen eskuragarritasuna ziurtatzea.<br>3. Zeinu-hizkuntzako interpretazio- eta bideointerpretazio-zerbitzuen edota gorrei, entzumen-desgaitasuna duten pertsonei eta gor-itsuei ahoz komunikatzen laguntzeko bestelako bitartekoen erabilgarritasuna ziurtatzea.<br>4. Jarduketa judizialetan azpititulu-zerbitzuen, komunikazio handigarriaren eta komunikazio alternatiboko bitarteko, modu eta formatu irisgarrien erabilgarritasuna ziurtatzea.<br>5. Desgaitasun intelektuala duten pertsonei eragiten dieten epaiak eta gainerako ebazpen judizialak egokitzeko bitartekoak edukitzea, zailtasun kognitiboak eta irakurketa-arazoak dauzkaten pertsonek ulertu ahal izan ditzaten.<br>6. Irakurketa errazeko zerbitzua irisgarria dela eta interesdunek abokatuaren bidez edo auzitegian zuzenean eskatu ahal dutela ziurtatzea. |
| ADIERAZLEAK | • Batzordea edo lantaldea sortzea (2024ko 1.HIRUHIL.)<br>• Dauden baliabideak mapa egitea (2024ko 3.HIRUHIL.)<br>• Prozedura-egokitzapenak edo -doikuntzak egiteko baliabideak sartzea (2025eko 3.HIRUHIL.) |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza.<br>EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>EDEKA eta hura osatzen duten federazioak (FEVAS Plena Inclusión Euskadi adimen- eta garapen-desgaitasunaren inklusioa Euskadi; Euskadiko Osasun Mentala; ELKARTEAN desgaitasun fisikoa; FEVASPACE garun-paralisia; ATECE Araba hartutako garun-kaltea; FEVAPAS eta EUSKAL GORRAK, pertsona gorrak; ONCE Itsuen Espainiako Erakundea). |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 2.HIRUHIL. | 2025eko 3.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3.IE. Prozeduretarako irispidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 09.P. Prozedura-doikuntzen katalogazioa |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Desgaitasuna duten pertsonek justiziarako sarbidean aukera berberak izatea laguntzeko behar diren prozedura-doikuntzak identifikatu eta katalogatzea.<br>Doikuntzak martxan jartzeko mekanismoak ezartzea, ofizioz erabakitzen denean edo fiskalak, interesdunek, haien abokatuek edo ordezkariek, epaileek, fiskalek eta Justizia Administrazioko gainerako operadoreek, polizia-zerbitzuek eta biktimei laguntzeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.<br>Mekanismoon funtzionamendua ebaluatzeko mekanismoak ezartzea. |
| HELBURUAK | 1. Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea hobetzea.<br>2. Pertsonarengan zentratutako sistema bat edukitzea, beharrezko diren prozedura-doikuntzak identifikatu, proposatu eta, hala badagokio, emateko. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | Lantalde bat sortzea operadore juridikoekin eta elkarteetako ordezkariekin, honi begira:<br>- Prozedura-doikuntzen katalogo malgu bat egitea, honako hauek aintzat hartuz:<br>o Desgaitasunen arabera aurreikus daitezkeen doikuntza-premiak.<br>o Prozedura judizialaren askotariko faseetan (instrukzioan, deklarazioan, frogan, ahozko ikustaldian...) egin daitezkeen aldaketak, premia dagoenean egin litezkeenak, eta aldaketak egiteko betekizunak.<br>- Prozedura erraz bat egitea, aldaketak eta egokitzapenak prozesua abiatu aurretik antolatzea eskatzeko.<br>- Prozedura erraz bat egitea, eskabideak ebaluatzeko eta katalogoan jasotzen ez diren doikuntzak aplikatzeko. |
| ADIERAZLEAK | • Prozedura-doikuntzen katalogoa egitea (2025eko 1.HIRUHIL.).<br>• Prozedura-doikuntzak eskatzeko prozedura zehaztea (2025eko 4.HIRUHIL.).<br>• Doikuntzak ebaluatzeko prozedura egitea (2026ko 2.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>EDEKA eta hura osatzen duten federazioak (FEVAS Plena Inclusión Euskadi adimen- eta garapen-desgaitasunaren inklusioa Euskadi; Euskadiko Osasun Mentala; ELKARTEAN desgaitasun fisikoa; FEVASPACE garun-paralisia; ATECE Araba hartutako garun-kaltea; FEVAPAS eta EUSKAL GORRAK, pertsona gorrak; ONCE Itsuen Espainiako Erakundea). |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 2.HIRUHIL. | 2026ko 2.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 3.IE .Prozeduretarako irispidea |
|---|---|
| PROIEKTUA | 10.P. Erraztaileen programa sortzea |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Erraztaile inpartzial, neutral eta gardenen programa egitea, prozesu judizialean hobeto komunikatzen laguntzeko desgaitasuna duten eta komunikazio-gabezia esanguratsuak dauzkaten pertsonei.<br><br>Barruan sartzen dira prozesu judizial batean parte direnak nahiz auzi penal batean biktima, lekuko, susmagarri edo akusatu gisa egoitza judizial edo polizialean deklaratu behar dutenak.<br><br>Erraztailearen eginkizuna da pertsonak prozesu batean parte hartzeko dituen mugak ebaluatzea eta, gero, behar dituen laguntzak diseinatu eta esku-hartzeetan laguntzea eta, halaber, operadore juridikoei aholku ematea, kasuan-kasuan ezarri behar diren egokitzapenei buruz. |
| HELBURUAK | 1. Erraztaileen programa bat edukitzea, bi norabidetako komunikazio-zubi izan daitezen organo judizial edo polizialaren eta desgaitasuna duen pertsonaren artean.<br>2. Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea hobetzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | • EAEko prozesu judizialetan erraztaile-lanak egiteko arau-esparru bat egitea, honako hauek zehaztuz:<br>- Xedea eta ezarpen-eremua<br>- Administrazio-antolaketa<br>- Jarduteko printzipioak<br>- Erraztailearen eginkizunak<br>- Lan horretarako behar diren ezagutzak<br>• Pertsonen eta erakundeen erregistro bat egin eta mantentzea.<br>• Erraztaileak trebatu eta homologatzea, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten antolakundeekin eta elkarteekin lankidetzan arituz. |
| ADIERAZLEAK | • Araudia onestea (2025eko 3.HIRUHIL.).<br>• Pertsonen eta erakundeen erregistroa sortzea (2025eko 4.HIRUHIL.).<br>• Prestakuntza- eta homologazio-jarduerak garatzea (2026ko 2.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak. |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Handia | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 2.HIRUHIL. | 2026ko 2.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4.IE. Ezagutza |
|---|---|
| PROIEKTUA | 11.P. Irisgarritasun unibertsala materialetan eta edukietan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin |
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Irisgarritasun unibertsaleko irizpideen arabera egokitzea Justizia Administrazioan editatzen diren eta herritarrei oro har zuzentzen zaizkien edukiak eta materialak. |
| HELBURUAK | 1. Justizia Administrazioak ematen duen informazio orokorraren irisgarritasuna bermatzea.<br>2. Biktimei, lekukoei, salatzaileei eta Justizia Administrazioaren bestelako erabiltzaileei zuzendutako materialen irisgarritasuna bermatzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia Administrazioan editatzen diren materialen eta edukien zerrenda bat egitea eta irisgarritasun unibertsaleko irizpideen betetze-maila aztertzea.<br>2. Irizpideok betetzen ez dituzten materialak eta edukiak egokitzea, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin.<br>3. Dokumentuak irakurketa errazean idazteko programa bat garatzea, dokumentuen tipologia eta kolektibo hartzaileak kontuan hartuta.<br>4. Atariko eta egoitza elektronikoko edukiak irakurketa errazera eta bestelako komunikazio-elementu alternatiboetara egokitzea, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin. |
| ADIERAZLEAK | • Edukien eta materialen irisgarritasunaren diagnostikoa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Materialak egokitzea (2025eko 2.HIRUHIL.).<br>• Dokumentuak irakurketa errazean edukitzeko programa ezartzea (2025eko 4.HIRUHIL.).<br>• Irakurketa errazera eta bestelako komunikazio-elementu alternatiboetara egokitutako edukiak webean eta egoitzan argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Antolaketaren eta Informazio Sistemen Zerbitzua.<br>EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak. JPE 2022-2028, 46.P. Idatzizko komunikazio ulergarria. JDP 2021-2026, 10.P. Inklusio digitalaren plana, sarbidea erraztu eta arrakala digitala ezabatzekoa; 11.P.: *justizia.eus* berritzeko lanak amaitzea |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 3.HIRUHIL. | 2025eko 4.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4.IE. Ezagutza |
|---|---|
| PROIEKTUA | 12.P. Informazio espezializatua |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Desgaitasuna duten pertsonentzat bereziki baliagarria izan daitekeen informazioa jasotzen duten edukiak eta materialak argitaratzea; hala nola, ibilbide irisgarriak, eskubideen erabilera, laguntzak edo zerbitzu espezifikoak eskatzeko prozedura. |
| HELBURUAK | 1. Eskubideak baliatzeari buruzko eta Justizia Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio espezifiko eta eguneratua sortzea eta desgaitasuna duten pertsonen esku jartzea.<br>2. Desgaitasuna duten pertsonentzat bereziki baliagarria izan daitekeen informazioa azkar eta erraz aurkitzen laguntzea. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Botere publikoek desgaitasuna duten pertsonei eskubideak baliatzen laguntze aldera eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa bildu eta eskaintzea www.justizia.eus webaren bidez.<br>2. Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbideari buruzko gida bat egitea.<br>3. Webguneko informazioa eguneratuta edukitzea eta edukiak berritzea. |
| ADIERAZLEAK | • Informazioa *justizia.eus* atarian argitaratzea (2024ko 4.HIRUHIL.).<br>• Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidearen gida argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Antolaketaren eta Informazio Sistemen Zerbitzua.<br>EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | Plan honetako gainerako proiektuak.<br>JPE 2022-2028. 41.P.: Zerbitzu-katalogoak eta -zorroak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
| | | | 2024ko 3.HIRUHIL. | 2025eko 2.HIRUHIL. |

| ILDO ESTRATEGIKOA | 4.IE. Ezagutza |
|---|---|
| PROIEKTUA | 13.P. Prestakuntza eta sentsibilizazioa |

| | |
|---|---|
| PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA | Justizia Administrazioan lan egiten duten askotariko kolektiboak trebatu eta sentsibilizatzea, beren jarduera-esparruan gai izan daitezen bermatzeko desgaitasuna duten pertsonek eskubideak erabat baliatzea. |
| HELBURUAK | 1. Justizia Administrazioko profesionalen ezagutzak hobetzea, desgaitasun motei buruzkoak eta eskubideak baliatzeko behar izan ditzaketen laguntzei buruzkoak.<br>2. Desgaitasuna duten pertsonek Justizia Administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubideak guztiz ezagutzea.<br>3. Justizia Administrazioko langileen gaitasuna hobetzea, arreta egokia eman diezaieten askotariko premiak dauzkaten pertsonei. |
| FUNTSEZKO JARDUERAK | 1. Justizia Administrazioarekin, operadore juridikoekin, elkarteekin eta adituekin parte hartzeko foro bat sortzea, desgaitasuna duten pertsonei justiziara iristea galarazten dieten oztopoak detektatzeko eta oztopo horiek desagerraraziko dituzten neurriak proposatzeko.<br>2. Desgaitasunean eta justiziarako sarbidean trebatzeko eta gaitzeko edukiak egitea. Desgaitasuna duten pertsonei arreta nola eman ikasteko online plataforma bat eta jardunbide egokien eskuliburu bat sortzea Justiziaren intranetean. Justizia Administrazioaren prestakuntza-planetara sartzea eduki horiek.<br>3. Desgaitasunari eta justiziarako sarbideari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-tailerrak garatzea, desgaitasun mota bakoitzean sakonduz.<br>4. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa lanbide juridikoen ikasketa-planetan sar dadin sustatzea; bereziki, honako lanbide hauei dagokienez: abokatuak, epaileak, fiskalak, Justizia Administrazioko letraduak, notarioak, poliziak, gizarte-langileak eta espetxeetako langileak.<br>5. Jardunbide egokien eta gomendioen gidak egitea, justiziako, fiskaltzako eta poliziako langileek berdintasunez parte hartzen lagundu dezaten prozesu judizialetako entzunaldietan.<br>6. Justizia Administrazioarekin harremanetan jartzen diren eta desgaitasuna duten pertsonen asebetetze-maila neurtzeko sistema bat diseinatu eta ezartzea. |
| ADIERAZLEAK | • Parte hartzeko foroa sortzea (2024ko 3.HIRUHIL.).<br>• Jendeari arreta emateko jardunbide egokien eskuliburua eta edukiak intranetean argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.).<br>• Egindako tailerren kopurua (>5 2026ko 4.HIRUHIL.).<br>• Jardunbide egokien eta gomendioen gida argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.).<br>• Asebetetze-maila neurtzeko sistema ezartzea (2025eko 1.HIRUHIL.).<br>• Asebetetze-maila > 2 puntu areagotzea (urtean, 2025eko 2.HIRUHILEKOTIK aurrera). |
| ERAGILE ARDURADUNA | Helduentzako Justizia Zerbitzua. |
| ERAGILE LAGUNTZAILEAK | Antolaketaren eta Informazio Sistemen Zerbitzua. Justizia Administrazioko Zuzendaritza. EAEJAN, Fiskaltza Nagusia, Gobernu Idazkaritza, AMEI, abokatuak, prokuradoreak eta lan-harremanetako gradudunak.<br>Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea, desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzen duena.<br>Ertzaintza. |
| LOTUTAKO PROIEKTUAK | 1.IE, 2.P. eta 3.P.<br>JPE 2022-2028, 22.P. Prestakuntza-planak egitea eta garatzea, eta 47.P. Ahozko komunikazio didaktikoa eta arreta goiztiarra. |

| ERAGINA/GARRANTZIA | Ertaina | | Hasiera | Aurreikusitako amaiera-data |
|---|---|---|---|---|
| | | | 2024ko 2.HIRUHIL. | 2025eko 2.HIRUHIL. |

## 5.4. DPJSPa betearazteko kronograma

| | | 2023 | | 2024 | | | | 2025 | | | | 2026 | | | | 2027 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 3. h | 4. h | 1. h | 2. h | 3. h | 4. h | 1. h | 2. h | 3. h | 4. h | 1. h | 2. h | 3. h | 4. h | 1. h | 2. h | Lehentasuna |
| 1.IE Justiziarako sarbidea | 01.P. Doako justiziarako sarbidea | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| | 02.P. Laguntza espezializatua desgaitasuna duten biktimei | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| | 03.P. Desgaitasuna duten atxilotuei edo ikertuei laguntza espezializatua ematea | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| 2.IE Egoitza judizialetarako sarbidea | 04.P. Irisgarritasun unibertsala ingurune fisikoetan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| | 05.P. Baliabide teknologikoak sartzea irisgarritasunerako | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| | 06.P. Egoitza judizial elektronikorako sarbidea | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| 3.IE Prozeduretarako irispidea | 07.P. Laguntza-neurri judizialak hornitzeko prozedurak hobetzea | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| | 08.P. Prozesu judizialetan prozedura-egokitzapenetarako eta -doikuntzetarako laguntza-zerbitzuak sortzea | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| | 09.P. Prozedura-doikuntzen katalogazioa | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| | 10.P. Erraztaileen programa sortzea | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| 4.IE Ezagutza | 11.P. Irisgarritasun unibertsala materialetan eta edukietan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |
| | 12.P. Informazio espezializatua | | | | | | | | | | | | | | | | | E |
| | 13.P. Prestakuntza eta sentsibilizazioa | | | | | | | | | | | | | | | | | **H** |

## 5.5. Adierazleen taula

| Ildoa | Proiektua | Adierazleak |
|---|---|---|
| 1.IE Justiziarako sarbidea | 01.P. Doako justiziarako sarbidea | • Espedienteen datuak erregistratzen hastea (2024ko 1.HIRUHIL.) |
| | | • Balorazio Batzordea sortzea (2024ko 4.HIRUHIL.) |
| | | • Ofiziozko txanda bat sortzea egokia ote den aztertzen duen txostena idaztea (2025eko 1.HIRUHIL.) |
| | | • Hala badagokio, ofiziozko txanda espezializatua sortzea (2025eko 3.HIRUHIL.). |
| | | • Egindako ikastaro espezifikoen kopurua (>1 2025eko 2.HIRUHIL.; >3 2026ko 1.HIRUHIL.). |
| | 02.P. Laguntza espezializatua desgaitasuna duten biktimei | • Biktimei Laguntzeko Zerbitzurako prestakuntza-plan espezifikoa diseinatzea. (2024ko 2.HIRUHIL.) |
| | | • Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan, desgaitasuna duten biktimei laguntzeko protokolo espezifikoa egitea. (2024ko 4.HIRUHIL.) |
| | | • Desgaitasuna duten biktimei banakako ebaluazio-txostena egiteko eredua egitea. (2024ko 4.HIRUHIL.) |
| | | • Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurura (>1 2025eko 2.HIRUHIL.; >4 2026ko 4.HIRUHIL.) |
| | 03.P. Desgaitasuna duten atxilotuei edo ikertuei laguntza espezializatua ematea | • Poliziaren atxilotze-protokoloak egokitzea. (2025eko 2.HIRUHIL.) |
| | | • Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurura (>1 2025eko 4.HIRUHIL.; >4 2026ko 4.HIRUHIL.) |
| 2.IE Egoitza judizialetarako sarbidea | 04.P. Irisgarritasun unibertsala ingurune fisikoetan | • Oztopo fisikoen zerrenda egitea (2024ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Elementu arkitektonikoen hobekuntzak planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.) |
| | | • Seinale-eta komunikazio-elementuen hobekuntzak planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.) |
| | | • Epe barruan egindako jarduketen ehunekoa, aurreikusien aldean (>% 70) (2026ko 4.HIRUHIL.). |
| | 05.P. Egoitza judizialetan laguntza teknologikoak sartzea | • Teknologien irisgarritasunaren diagnostikoa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Puntu giltzarrien zerrenda, proposamena eta irtenbideen ebaluazioa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Ezarpena planifikatzea (2025eko 1.HIRUHIL.). |
| | 06.P. Egoitza judizial elektronikorako sarbidea | • Irisgarritasun-testa gainditzea (eguneratu ahala)<br>• Irisgarritasun-ikuskapena egitea (urtekoa) |

| Ildoa | Proiektua | Adierazleak |
|---|---|---|
| 3.IE Prozeduretarako irispidea | 07.P. Laguntza-neurri judizialak hornitzeko prozedurak hobetzea | • 8/2021 Legea indarrean jarri aurretiko ezintasun-epaiak berrikusteko ekintzak ebaluatzea (2023ko 3.HIRUHIL.). |
| | | • Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurrien ebaluazio-irizpenak eta -txostenak egiteko estandarrak onestea (2024ko 2.HIRUHIL.). |
| | | • Justizia Sailak, Justizia Administrazioak eta foru-aldundien tutoretza-erakundeek egindako bileren kopurua >2 2024ko 2.HIRUHIL.). |
| | | • Justizia Administrazioari laguntzen dioten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak ofizialki aitortzeko legea garatzea eta araua argitaratzea (2025eko 4.HIRUHIL.). |
| | 08.P. Prozesu judizialetan prozedura-egokitzapenetarako eta -doikuntzetarako laguntza-zerbitzuak sortzea | • Batzordea edo lantaldea sortzea (2024ko 1.HIRUHIL.) |
| | | • Dauden baliabideak mapa egitea (2024ko 3.HIRUHIL.) |
| | | • Prozedura-egokitzapenak edo -doikuntzak egiteko baliabideak sartzea (2025eko 3.HIRUHIL.) |
| | 09.P. Prozedura-doikuntzen katalogazioa | • Prozedura-doikuntzen katalogoa egitea (2025eko 1.HIRUHIL.). |
| | | • Prozedura-doikuntzak eskatzeko prozedura zehaztea (2025eko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Doikuntzak ebaluatzeko prozedura egitea (2026ko 2.HIRUHIL.). |
| | 10.P. Erraztaileen programa sortzea | • Araudia onestea (2025eko 3.HIRUHIL.). |
| | | • Pertsonen eta erakundeen erregistroa sortzea (2025eko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Prestakuntza- eta homologazio-jarduerak garatzea (2026ko 2.HIRUHIL.). |
| 4.IE Ezagutza | 11.P. Irisgarritasun unibertsala materialetan eta edukietan, bat etorrita arrazoizko doikuntzen kontzeptuarekin | • Edukien eta materialen irisgarritasunaren diagnostikoa egitea (2024ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Materialak egokitzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| | | • Dokumentuak irakurketa errazean edukitzeko programa ezartzea (2025eko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Irakurketa errazera eta bestelako komunikazio-elementu alternatiboetara egokitutako edukiak webean eta egoitzan argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| | 12.P. Informazio espezializatua | • Informazioa *justizia.eus* atarian argitaratzea (2024ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Desgaitasuna duten pertsonei justiziarako sarbidea errazteko plana onartuta (2025eko 4. hiruh.). |
| | 13.P. Prestakuntza eta sentsibilizazioa | • Parte hartzeko foroa sortzea (2024ko 3.HIRUHIL.). |
| | | • Jendeari arreta emateko jardunbide egokien eskuliburua eta edukiak intranetean argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| | | • Egindako tailerren kopurua (>5 2026ko 4.HIRUHIL.). |
| | | • Jardunbide egokien eta gomendioen gida argitaratzea (2025eko 2.HIRUHIL.). |
| | | • Asebetetze-maila neurtzeko sistema ezartzea (2025eko 1.HIRUHIL.). |
| | | • Asebetetze-maila > 2 puntu areagotzea (urtean, 2025eko 2.HIRUHILEKOTIK aurrera). |

## 5.6. Aurreikusitako inbertsioak

### Proiektuen finantzaketa

| Justizia Zuzendaritza | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 01.P. Doako justiziarako sarbidea | 2024rako, guztira, 20.132.000 euroko gastua balioetsi da doako justiziarako; barruan sartzen dira abokatu eta prokuradoreentzako konpentsazioak, zerbitzuaren funtzionamendu-gastuak eta profesionalen prestakuntza. Aurreikuspen horretan, kontuan hartu da balitekeela auziek gora egitea, desgaitasuna duten biktimei –ahalmen ekonomikoa edozein izanda ere– berehalako laguntza juridikoa emateko zerbitzua unibertsalizatzeagatik.<br>Laguntza judizialak zehazteko prozesuei begira desgaitasun-txanda espezializatua sortzeak (sortzen bada) ez du aurrekontua gehiegi igoko, desgaitasuna duten pertsonen ehuneko handi batek doako laguntza juridikoa eskuratzeko betekizun ekonomikoak betetzen dituelako dagoeneko.<br>Prestakuntzarako ohiko partida espezifikoen barruan sar daiteke **prestakuntza**; partida horiek aurreikusita daude dagoeneko, eta **50.000 eurokoak dira urtean**. | | | | |
| 02.P. Laguntza espezializatua desgaitasuna duten biktimei | BLZrako dagoeneko aurreikusi diren ohiko partiden barruan onar daiteke prestakuntza. | | | | |
| 03.P. Desgaitasuna duten atxilotuei edo ikertuei laguntza espezializatua ematea | Segurtasun Sailerako eta PLEArako dagoeneko aurreikusi diren ohiko partiden barruan onar daiteke prestakuntza. | | | | |
| 07.P.-13.P. Desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa gauzatzean prozesu judizialak garatzen laguntzeko eta errazteko neurriak | 130.000 € | 250.000 € | 250.000 € | 250.000 € | **880.000 €** |

| Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
